

HERRITARREN PARTEHARTZEA

AMAÑA aldeko bilera

EGUNA 2015/11/03

Saila

Laburpena

- Alkatetza** Amaña auzoan aparkatzeko dauden arazoak aipatu dituzte.
- Alkatetza** Amaña kaleko 2-6an jarlekuak kenduko diren galdetu dute.
- Alkatetza** Artegietakalek mendira igotzeko aukerarik dagoen galdetu dute. Atea jarrita dago serrailarekin.
- Alkatetza** Auzoko batek Amañako auzoak bere cultura-agenda izatea eskatu du. (ipuin kontalaritza, antzerkia, kultura ekitaldiak...).
- Alkatetza** Amaña auzoan aparkatzea zaila dela dio auzoko batek, eta El Corte Inglesari haren aparkalekua erabiltzeko eskatzea eskatu du.
- Alkatetza** Txakurren araudiaz galdetu dute eta txakurrak kalean lotuta joan behar direla adieraziko luketen kartelak jartzea eskatu.
- Obrak** Amañako pasealekuaren aldetik zaharrenaren lurzorua berriztatzea eskatu dute.
- Obrak** Amañako pasabideaz galdetu du, kendu behar den ala ez jakin nahi du.
- Obrak** Tiburzio Anitua kaleko 1º etxeke persona bat kexatu egin da aparkalekuak kendu direlako eta bere Etxeko fatxadan zirrikitu bat agertu delako.
- Obrak** Tiburzio Anitua kaleko 1-2 Karlos Elgezua 6arekin elkartuko duen igogailu publikoa noiz eraiki behar den galdetu dute.
- Obrak** Tiburzio Anitua kaleko 12tik 20ra zabaltzeko aukera aztertzea eskatu dute aparkaleku gehiago jartzeko aukera izateko.
- Obrak** Bustinduitarren kalekoek kale hartako 8tik 19ra bitartean dagoen espaloi harmailaduna igotzeko izaten dituzten arazoak azaldu dituzte. Espaloi bat egitea eskatu dute.
- Obrak** Tiburzio Anituaren 18tik 20ra bitartean dagoen leku hartatik Bustinduitarren kaleko goi aldera arrapala edo igogailua jartzea eskatu dute.

HERRITARREN PARTEHARTZEA

AMAÑA aldeko bilera

EGUNA 2015/11/03

Saila

Laburpena

- Obrak** Karlos Elgezua 2ko auzkokoek espaloiak ez duenez beheragunerik horrek sortzen dizkien arazoen berri eman dute. Errepidetik ibili behar izaten dutela esan dute.
- Obrak** Wenceslao Orbea kalean bizi den pertsona batek semaforoak jartzeko eskaera egin du bidearen sarrera eta irteera kontrolatzeko.
- Obrak** Amañako pasealekuan paperontziak jartzeko eskaera egin du.
- Zerbitzuak** Bustindui eta Asola Igartza arteko eskailera mekanikoekin egiten den erabilera txarra salatzen du. Dirudienez, pertsona batzuek gelditu egiten dituzte eskailera normalak izango balira bezala erabiltzeko.
- Zerbitzuak** Elizarako igoeran, fatxadaren aldean, eskudel bat jartzea eskatu du.
- Udaltzaingoa** Barrenenguak igotzeko erreia izatea eskatzen du.
- Udaltzaingoa** Tunel berriaren irteeran ezkerrean har daitekeen galdetu du (Alfaren eta Ospitalaren arteko bidea).
- Udaltzaingoa** Ziriako Agirre kalean jendeak ez duela ondo aparkatzen adierazten du.
- Udaltzaingoa** Txakur kakak jasotzearena gehiago kontrolatzea eskatu dute.
- Zerbitzuak** Umeentzako jolas-tokiak pasealekuaren ze tokitan jarriko diren galdetzen du.
- Zerbitzuak** Amañako pasealekuaren ondoko globo itxurako farolak ordezkaturako diren jakin nahi du.
- Zerbitzuak** Tiburzio Anitua kaleko 21 zenbaikaren igogailuaren ondoan dagoen eserlekuaren alboan paperontzi bat jartzea eskatu du.

HERRITARREN PARTEHARTZEA

AMAÑA aldeko bilera

EGUNA 2015/11/03

Saila

Laburpena

- Zerbitzuak** Eguaztenetako kale-azokak sortzen duen zabor larregiaz kexatu da; baita zabor hori tratatzeko moduz ere, dena edukiontze berberera botatzen delako.
- Zerbitzuak** 5. edukiontziaz eta haren erabileraz galdetu du.
- Zerbitzuak** Amañako pasealekuaren komun berrietako manparak aldatzea eskatu dute. Adierazi duenez, kanpotik ikusi egiten da barruan dagoena.
- Zerbitzuak** Amañan, Tiburzio Anitua kaleko 21eko igogailua ez dela garbitzen salatzen du. Zikinkeriarekin belztuta dagoela eta kanpoaldea pixaz Beteta dagoela esaten du.
- Zerbitzuak** Azkena tabernaren parean umeentzako jarriko den jolas-tokiaz galdetu dute, baita hauek itxiturarik izango duten ere.
- Zerbitzuak** Amañako kaleko 8. etxeko bizilagun batek fatxadan dauden kaxa elektrikoak modu ezkutuagoan jartzea edo bestela itxura hobetzeko eskatu du. Fatxada asko zatartzen dutela adierazten du.
- Zerbitzuak** Tiburzio Anitua kaleko 8,9 eta 10 zenbakien ostea garbitzea eskatu du.
- Zerbitzuak** Tiburzio Anitua kaleko tabernan dagoen eskudela hobetzea eskatu du.